Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko otsailaren 12a, osteguna — 28 — Jueves, a 12 de febrero de 2015



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

#### Berdintasun Zuzendaritza Nagusia

*Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jardueretarako diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2015eko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak, 2015eko otsailaren 3ko bileran, ondorengo erabakia hartu du:

«Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburu nagusietako bat da, Berdintasun Zuzendaritza Nagusia bitarteko dela, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzea gure lurraldeko bizitza sozial, politiko, ekonomiko eta kulturaleko esparru guztietan. Hori dela-eta, Foru Aldundiak baldintza batzuk sortu nahi ditu sexuen arteko berdintasuna errazteko, berdintasun hori izatez eta eskubidez ukatzen duten hesiak ezabatzeko, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen aurka eman litekeen edozein diskriminazio deuseztatzeko.

Helburu horiek burura eramateko, euskal administrazio osoaren partaidetza behar da, eta bereziki tokiko administrazioarena, bera baita gertuen dagoena herritarren beharretatik, interesetatik eta kezketatik.

Ildo horretan, 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 7.1 artikuluan zehazten du tokiko administrazioek zer eskumen dituzten arlo horretan; eta 6. artikuluan dio: «Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bakoitzak bere lurralde historikoaren eremuan diharduela, ondokoak direla, besteak beste, foru administrazioei dagozkien eginkizunak:

«f) Bakoitzak bere lurralde-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak burutzea.

h) Sustapen-neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki-entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko».

Halaber, 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eskatzen dienaren arabera, euskal administrazio publikoek bultzatu behar dituzte emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta, orobat, emakumeen posizio soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala indartzeko ekintzak burutzen dituzten elkarteak.

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du emakumeen elkarteak sustatzen jarraitzea. Izan ere, elkarte horiek dira -eta horiekin batera irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuk, xede dutenak emakumeak sustatzea- beren jarduerekin emakumeen partaidetzan eta sustapenean zuzenki eragin dezaketenak gure lurraldean, eta, hartara, Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak programatutako jarduerak osatzen dituztenak, sentsibilizazio soziala lortzearren. Sentsibilizazio soziala, izan ere, foru aldundien eskumena da, hala xedatzen baitu 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 6.f)

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADO GENERAL

#### Dirección General de Igualdad

*Bases reguladoras y Convocatoria 2015 para el otorgamiento de subvenciones para actuaciones que fomenten la igualdad de mujeres y hombres.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 3 de febrero de 2015, ha adoptado el siguiente acuerdo:

«Uno de los fines esenciales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de su Dirección General de Igualdad, es la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida social, política, económica y cultural de nuestro territorio, fijándose como objetivo, la promoción de las condiciones que faciliten la igualdad entre los sexos, la remoción de los obstáculos que impidan su plenitud de hecho y de derecho, y la eliminación de todas las formas de discriminación hacia las mujeres en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La consecución de dichos objetivos requiere, por una parte, de la participación de toda la Administración Vasca, con especial relevancia de la local, como instancia más cercana a las necesidades, intereses e inquietudes de la ciudadanía.

La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en su artículo 7.1, determina las competencias de la Administración Local, y en el artículo 6 establece que en materia de igualdad de mujeres y hombres y en el ámbito de sus respectivos territorios históricos, corresponden a las administraciones forales, entre otras, las siguientes funciones:

«f) Realización, en su ámbito territorial, de actividades de sensibilización sobre la situación de desigualdad entre mujeres y hombres y sobre las medidas necesarias para promover la igualdad.

h) Establecimiento de medidas de fomento a fin de dotar a los ayuntamientos y demás entidades locales de recursos materiales, económicos y personales para el desarrollo de programas y actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres».

Además, la Ley 4/2005, de 18 de febrero, exige a las administraciones públicas vascas que incentiven a las asociaciones que lleven a cabo actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, así como a la promoción de la autonomía y al fortalecimiento de la posición social, política, económica y cultural de las mujeres.

A este respecto, la Diputación Foral de Gipuzkoa considera necesario seguir fomentando el asociacionismo entre las mujeres ya que, precisamente, son las asociaciones y otras entidades sin ánimo de lucro que tienen por objeto la promoción de las mujeres, las que con sus actividades pueden incidir de forma directa en la participación y promoción de las mismas en nuestro territorio, efectuándose con ello una indispensable labor de complemento con las actuaciones programadas por la propia Dirección General de Igualdad, en aras a alcanzar la necesaria sensibilización social, lo que constituye, según dis-

EK\CV GAO-I-2015-01245

artikuluan.

Gauzak horrela, erabaki honen bidez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaian diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, eta 2015eko deialdia egiten da. Diru laguntzak honako hauei emango zaizkie:

a) Gipuzkoako udalei -banaka edo hainbat udal elkarrekin aurkeztuta- eta mankomunitateei: proiektu estrategikoak gauza ditzaten emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken esparruan.

b) Gipuzkoako emakumeen elkarteei eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei, baldin eta horien helburu bakarra bada emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea, eta elkarte mugimendua bultzatzen eta emakumeen partaidetza soziala indartzen badute.

Horrenbestez, diputatu nagusiak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak.

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea: batetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jardueretarako diru laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, erabaki honen bukaeran biltzen direnak; eta bestetik, diru laguntza modalitate bakoitzari dagozkion oinarri espezifikoak -udalei eta mankomunitateei zuzendutakoak, nahiz emakumeen elkarteei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzendutakoak-, I. eta II. eranskinetan jasotzen direnak hurrenez hurren.

*Bigarren.* Onartzea aipatutako diru laguntzak emateko 2015eko deialdia.

*1. Finantzazioa.*

2015eko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, hirurehun eta hirurogei mila (360.000,00) euroko gastua baimentzen da kontu sail hauen kargura:

a) 160.000,00 euro 1.0130.300.461.01.01.2015 eta 1.0130.300.461.02.01.2015 kontu sailetatik, Gipuzkoako udalei eta mankomunitateei diru laguntzak emateko (I. eranskina).

b) 200.000,00 euro, 1.0130.300.481.00.01.2015 kontu sailetik, Gipuzkoako emakumeen elkarteei eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei diru laguntzak emateko (II. eranskina).

*2. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea hau izango da:

a) Gipuzkoako udalei eta mankomunitateei emateko diru laguntzentzat hogei egun baliodunekoa: deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

b) Gipuzkoako emakumeen elkarteei eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei emateko diru laguntzentzat hilabetekoa: deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Epea bukatzen den eguna larunbat, igande edo jaieguna bada, hurrengo egun balioduna hartuko da azkeneko eguntzat.

*3. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea frogatzen duten ziurtagiriak.*

Bigarren atal honen 1.b) puntuan aipatzen diren elkarte eta erakundeek baimena eman ahal diote diru laguntzen organo kudeatzaileari beren zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztenari buruzko informazioa zuzenean lor

pone el artículo 6.f) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, otra de las funciones que tienen atribuidas las diputaciones forales en este ámbito.

Por ello, mediante el presente acuerdo se aprueban las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones en materia de igualdad de mujeres y hombres y la convocatoria correspondiente al año 2015. Dichas subvenciones tienen dos destinatarios diferentes:

a) Los ayuntamientos -individualmente o concurriendo varios de ellos conjuntamente- y las mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para la ejecución de proyectos estratégicos en el marco de políticas para la igualdad de mujeres y hombres.

b) Las asociaciones de mujeres y otras entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Gipuzkoa cuyo único fin sea promover la igualdad de mujeres y hombres, que fomenten el asociacionismo y potencien la participación social de las mujeres en Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En su virtud, a propuesta del diputado general, y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral.

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales del otorgamiento de subvenciones para actuaciones que fomenten la igualdad de mujeres y hombres, que se insertan al final del presente acuerdo. Asimismo, se aprueban las bases reguladoras específicas correspondientes a cada una de las modalidades de subvención: las destinadas a ayuntamientos y mancomunidades, y las destinadas a asociaciones de mujeres y otras entidades sin ánimo de lucro, que se acompañan a las citadas bases como anexos I y II respectivamente.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente a 2015 de las citadas subvenciones.

*1. Financiación.*

Para las subvenciones correspondientes al ejercicio presupuestario 2015, se autoriza un gasto de trescientos sesenta mil (360.000,00) euros, con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

a) 160.000,00 euros de las partidas 1.0130.300.461.01.01.2015 y 1.0130.300.461.02.01.2015, para las subvenciones con destino a ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa (anexo I).

b) 200.000,00 euros de la partida 1.0130.300.481.00.01.2015, para las subvenciones destinadas a asociaciones de mujeres y a otras entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Gipuzkoa (anexo II).

*2. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes será el siguiente:

a) Para las subvenciones con destino a ayuntamientos y a mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa veinte días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

b) Para las subvenciones destinadas a asociaciones de mujeres y a otras entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Gipuzkoa un mes, a partir de la publicación de esta convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Si la finalización del plazo recayera en sábado, domingo o inhábil, se trasladará al día hábil inmediatamente siguiente.

*3. Certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.*

Las asociaciones y entidades mencionadas en el punto 1.b) de este apartado segundo podrán autorizar al órgano gestor de las subvenciones para recabar directamente de las administraciones competentes la información relativa al cumplimiento de

dezan dagozkion administrazio publikoengandik. Lagapen hori baimentzen badute, ez dituzte ekarri behar datu horiek jasotzen dituzten ziurtagiriak.

Udalek eta mankomunitateek, berriz, nahikoa izango dute obligazio horiek betetzeari buruzko ardurapeko aitorpena aurkeztea.

*4. Deialdiaren ebazpena.*

Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 59.6.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege-ondorio guztietarako.

*Hirugarren.* Erabaki honek onartzen dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, horren aurretik, interesatu partikularrek aukera dute berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko EPEAn, iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke».

Donostia, 2015eko otsailaren 9a.—Segundo Diez Molinero, Diputatu Nagusiaren Alorreko idazkaria. (1245)

OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

*1. Xedea.*

Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzak emango dira emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jarduketetarako; zehazki, hauei emango zaizkie:

1) Udalei -banaka edo hainbat udal elkarrekin aurkeztuta- eta mankomunitateei, proiektu estrategikoak gauzatu ditzaten emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken esparruan (I. eranskina).

2) Emakumeen elkarteak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburua duten irabazi asmorik gabeko Gipuzkoako erakundeak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan elkartegintza bultzatzen eta emakumeen partaidetza soziala indartzen dutenak (II. eranskina).

*2. Diru laguntzen entitate eskatzaileak.*

1. oinarri hauetan arautako diru laguntzak eskatu ahalko dituzte udalek eta mankomunitateek, emakumeen elkarteek eta helburu bakartzat emakume eta gizonen berdintasuna duten irabazi asmorik gabeko erakundeek, baldin eta ez badute 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluaren 2, 3 eta 4. ataletan ezarritako debekuren bat, eta baldin eta diru laguntza lerro bakoitzerako betetzen badituzte oinarri hauekin batera doazen eranskinetan adierazitako gainerako eskakizunak.

2. Aurreko 1. oinarriko 2) zenbakian aipatu eskatzaileak, egiaztatzeko ez dagoela 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, 12. artikuluak 2, 3 eta 4. ataletan aipatu diren eta onuradun izatea eragozten duten debeku egoeretan, bide hauek

sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. Si autorizan dicha cesión, no tendrán que aportar las certificaciones correspondientes.

Los ayuntamientos y mancomunidades sólo tienen que presentar una declaración responsable a estos efectos.

*4. Resolución de la convocatoria.*

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 59.6.b) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el Procedimiento Administrativo Común, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

*Tercero.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente».

San Sebastián, a 9 de febrero de 2015—El secretario del Área del Diputado General, Segundo Diez Molinero. (1245)

BASES REGULADORAS GENERALES

*1.ª Objeto.*

Es objeto de las subvenciones cuyo otorgamiento regulan las presentes bases, las actuaciones que fomenten la igualdad de mujeres y hombres llevadas a cabo por:

1) Ayuntamientos -concurriendo individualmente y/o conjuntamente con otro u otros- y mancomunidades para la ejecución de proyectos estratégicos en el marco de Políticas para la Igualdad de mujeres y hombres (anexo I).

2) Asociaciones de mujeres y otras entidades sin ánimo de lucro guipuzcoanas cuyo único fin sea promover la igualdad de mujeres y hombres, que fomenten el asociacionismo y potencien la participación social de las mujeres en Territorio Histórico de Gipuzkoa (anexo II).

*2.ª Entidades solicitantes de estas subvenciones.*

1. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases los ayuntamientos y mancomunidades, las asociaciones de mujeres y otras entidades sin ánimo de lucro cuyo único fin sea promover la igualdad de mujeres y hombres, siempre que no se vean afectadas por ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y cumplan los demás requisitos que se señalan, para cada línea de subvenciones, en los anexos que acompañan a estas bases.

2. La justificación por parte de las asociaciones y entidades mencionadas en la base 1.ª2) de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria que se establecen en el artículo 12, apartados 2, 3 y 4, de la Norma

EK\CV GAO-I-2015-01245

erabili ahal izango ditu: Lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu transmisioak, dagokion araudian ezarritakoaren arabera, edo bestela, ziurtagiri administratiboa, kasuan kasu. Ziurtagiri hori agintari eskudunak egiterik ez badu, haren ordez ardurapeko aitorpena aurkeztu ahalko du diru laguntzaren eskaerarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Alorreko Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak emango duen ereduaren arabera.

Udalek eta mankomunitateek, berriz, nahikoa izango dute aipatu ardurapeko aitorpena aurkeztea.

*3. Diru laguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

1. Bai eskaerak, Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak emandako ereduaren arabera eginak, eta bai aurreko oinarrian eta oinarri hauekin batera doazen eranskinetan ezarritako dokumentazioa, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan aurkeztuko dira lehentasunez, baldin eta dokumentuaren izaerak horretarako aukera ematen badu. Egoitza elektronikoaren helbidea https://www.gfaegoitza.eus da, eta, bertan, dirulaguntzen atarian sartu behar da, eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarri den berariazko inprimakia erabili. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezterakoan, foru dekretu hauek bete behar dira: Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzeko 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua; eta 2006ko irailaren 12ko 40/06 Foru Dekretua, foru administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duena.

Orobat, eskaerak eta dokumentazioa aurkeztu daitezke Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Zentralean (Gipuzkoa plaza zk.g., beheko solairua, Donostia), Berdintasun Zuzendaritza Nagusiari zuzenduta; edo, nahi izanez gero, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan aurreikusitako bitartekoetatik edozein erabiliz.

2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera-orri normalizatuak eskuragarri egongo dira bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.gfaegoitza.eus), baita Berdintasun Zuzendaritza Nagusiaren bulegoan ere (Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa plaza zk.g., 2. solairua).

3. Eskaerak aurkezteko epea urte bakoitzeko deialdian ezarriko da.

4. Erakunde eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jada Gipuzkoako Foru Aldundiak badituen dokumentuak, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 35.f) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, betiere dokumentuak aurkeztu ondoren ez badira bost urte igaro. Horrelakoetan, eskaera orrian adierazi beharko da dokumentu horiek zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, egin ziren.

*4. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.*

1. Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez badituzte identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badute edo zerbait falta bazaie, eskatzaileari eskatuko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar egun balioduneko epean akats horiek zuzentzeko, eta adieraziko zaio ezen, baldintza hori ez badu betetzen, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 42.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak eskatzaileari eskatu ahalko dio eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro.

Foral 3/2007, de 27 de marzo, podrá realizarse mediante testimonio judicial, certificados telemáticos o transmisiones de datos, de acuerdo con lo establecido en la normativa correspondiente o mediante certificación administrativa, según los casos. Cuando esta certificación no pueda ser expedida por la autoridad competente, podrá ser sustituida por la presentación de una declaración responsable que se acompañe a la solicitud de subvención, según modelo que facilite la Dirección General de Igualdad del Área del Diputado General de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Los ayuntamientos y mancomunidades sólo tienen que presentar dicha declaración responsable a estos efectos.

*3.ª Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.*

1. Las solicitudes, según modelo que facilite la Dirección General de Igualdad, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas según la base anterior y lo señalado en los anexos que acompañan a estas bases, se presentarán, preferentemente y siempre que su naturaleza lo permita, vía Internet a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, https://www.gfaegoitza.eus, accediendo al portal de subvenciones y utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de septiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

También podrán dirigirse a la Dirección General de Igualdad, y presentarse en el Registro Central de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Plaza Gipuzkoa s/n, planta baja, San Sebastián), o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, https://www.gfaegoitza.eus, y se podrán recoger también en las dependencias de la Dirección General de Igualdad (Diputación Foral de Gipuzkoa, Pza de Gipuzkoa s/n, 2.ª planta).

3. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

4. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 35.f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde que dichos documentos fueron presentados. En estos casos, se deberán indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

*4.ª Subsanación y documentación complementaria.*

1. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de ese mismo texto legal.

2. La Dirección General de Igualdad de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

EK\CV GAO-I-2015-01245

*5. Emateko prozedura.*

1. Diru laguntzak emateko prozedura izango da deialdi eta hautaketa prozesu bakarreko lehia.

2. Prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

*6. Balorazio irizpideak.*

Diru laguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak izango dira diru-laguntza lerro bakoitzarentzat ezarritakoak oinarri orokor hauekin batera doazen oinarri espezifikoetan.

*7. Finantzazioa.*

1. Emango diren diru laguntzak deialdiaren urteko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian ezarriko da diru laguntzak aurrekontuko zein kredituren kargura emango diren.

2. Oinarri hauen xede diren diru laguntzak bateragarriak izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk xede bererako eman ditzakeen diru laguntza, sarrera edo baliabideekin, beste diru laguntzen araudiek xedatu dezaketenaren kaltetan gabe.

3. Oinarri hauetan araututako diru laguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

4. Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

5. Oinarri hauetan araututako diru laguntzak ez dira estatuko laguntzatzat hartuko, estatuko laguntzak ulertuta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunak 107. artikuluko 1. puntuan xedatutakoaren arabera: ez baitakarte onurarik enpresa jakin batentzat, eta ez baitiete ekoizpen edo enpresa jakin batzuei mesede egiten beste batzuen kaltetan.

*8. Diru laguntzen zenbatekoa eta gastu hautagarrien xehetasunak.*

1. Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, kontuan izanda aurrekontuan erabilgarri dagoena eta oinarri hauekin batera doazen eranskinetan definitutako diru laguntzen balorazio eta kuantifikazio irizpideak.

2. Gastu hautagarriak dira jarduerak zuzenean dakartzanak; esate baterako, dokumentazioa, materialak, prestakuntza, inprenta, zabalkundea, laguntza teknikoa, joan-etorriak, aretoak alokatzea, eta abar.

3. Eskatzaileari ez zaizkio inolaz ere diruz lagunduko ez funtzionamendu arrunteko gastuak, ez bere langileen gastuak.

4. Bidaien gastuen gehieneko tarifak bat etorriko dira Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoan, eta dekretu hori aldatzen duten abenduaren 19ko 267/2000 eta ekainaren 13ko 121/2006 dekretuetan ezarritako baremoarekin.

5. Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, aplikatuko da, eranskin bakoitzean adierazitakoaz gain, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 30. artikuluan ezarritakoa; nahiz eta egindako gastutzat hartuko den, ez bakarrik justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena, baizik eta baita diru laguntza jaso duen entitate onuradunak oraindik

*5.ª Procedimiento de concesión.*

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

2. El procedimiento se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*6.ª Criterios de valoración.*

Los criterios de valoración de las solicitudes de subvención serán los que, para cada línea subvencional, se señalan en los anexos que acompañan, como bases específicas, a estas bases generales.

*7.ª Financiación.*

1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse, se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y, en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

5. Las subvenciones reguladas en estas bases no constituyen ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no supone un beneficio para una empresa ni favorece a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras.

*8.ª Cuantía de las subvenciones y detalle de los gastos elegibles.*

1. El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración y cuantificación de las subvenciones definidos en los anexos que acompañan a estas bases.

2. Se considerarán gastos elegibles aquellos gastos derivados directamente de la actividad a desarrollar, como pueden ser: documentación, materiales, formación, imprenta, difusión, asistencia técnica, desplazamientos, alquiler de salas, etc.

3. En ningún caso serán subvencionables los gastos derivados del funcionamiento normal de la entidad solicitante, ni los gastos de personal de la misma.

4. Las tarifas máximas de los gastos relativos a viajes se ajustarán al baremo establecido por el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, del Gobierno Vasco, sobre indemnizaciones por razón de servicio, modificado por los decretos 267/2000, de 19 de diciembre y 121/2006, de 13 de junio.

5. En relación a los gastos subvencionables, además de lo indicado en cada uno de los anexos, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 30 de la Normal Foral 3/2007, de 27 de marzo, si bien se considerará gasto realizado no sólo aquél que haya sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación determinado, sino también el

EK\CV GAO-I-2015-01245

ordaindu gabe duena ere, baldin eta gastu hori justifikatuta badago dagozkion fakturen edo balio bereko frogagirien bidez.

*9. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

1. Diru laguntza hauek emateko prozedura bideratuko du Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak.

2. Eskaerak Berdintasun Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aztertuko dituzte eta, behar izanez gero kanpoko adituen laguntzarekin, balorazio txostena egingo dute. Txosten hori batzorde ebaluatzaileari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza emango duen ebazpen proposamena egin dezan; eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Batzorde ebaluatzaileko kide izango dira Berdintasuneko zuzendari nagusia, zeinak batzordea zuzenduko duen; Berdintasuneko zerbitzuburua; Berdintasuneko Zerbitzuko funtzionari bat; eta Diputatu Nagusiaren Alorreko Idazkaritzako teknikari bat, zeina batzordeko idazkaria izango den.

*10. Diru laguntzak emateko ebazpena.*

1. Diputatu nagusia da organo eskuduna oinarri hauetako diru laguntzak ematea ebazteko.

2. Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.6.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da legeondorio guztietarako.

3. Laguntzak emateko prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez ere, urteko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, data horretan hasten baita prozedura ondorio guztietarako.

4. Aurreko atalean adierazitako gehienezko epea amaitzerako ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, interesatuek administrazioaren isiltasunez beraien eskaerak ezetsiak izan direla uler dezakete.

*11. Erakunde onuradunen betebehar eta konpromisoak.*

Erakunde onuradunak, diru laguntza onartzen badu, derrigorrean bete beharko ditu onuradun gisa dagozkion obligazioak, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, eta foru arau hori garatzeko erregelamenduak (2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartutakoak), izaera orokorrez ezartzen dituztenak. Horiez gain, beste obligazio hauek izango ditu:

a) Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak deitzen dituen bileretan parte hartzea; parte-hartzea ahalik eta handiena izan dadin, behar diren bide eta bitartekoak ezarriko ditu Zuzendaritzak.

b) Diruz lagundutako proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazio eta hedapen jardueretan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen foru dekretuak xedatutakoaren arabera.

c) Komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan, hizkera sexista ez dela erabiliko bermatzea.

d) Diruz lagundutako proiektuak edo ekintzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan duela jakinaraztea. Horretarako,

que, estando pendiente de pago por la entidad beneficiaria de la subvención, se encuentre justificado mediante las correspondientes facturas o documentos de valor probatorio equivalente.

*9.ª Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá a la Dirección General de Igualdad.

2. Las solicitudes serán analizadas por personal técnico de la Dirección General de Igualdad, que, con la eventual asistencia de personas expertas externas, elaborará un informe de valoración de las mismas, informe que será sometido a la Comisión Evaluadora que, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y que será elevada al órgano competente para su aprobación.

Formarán parte de la Comisión Evaluadora la directora general de Igualdad, que presidirá la misma; la jefa del Servicio de Igualdad; un funcionario o funcionaria del Servicio de Igualdad; y un técnico o técnica de la Secretaría del Área del Diputado General, en calidad de secretario/a de la comisión.

*10.ª Resolución de concesión.*

1. El diputado general será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases.

2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 59.6.b) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

3. El plazo máximo que se establece para resolver y notificar la resolución del procedimiento de concesión de las ayudas es de seis meses, computados a partir del día siguiente al de la publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa de la correspondiente convocatoria anual, que implica la iniciación del procedimiento a todos los efectos.

4. Transcurrido el plazo máximo señalado en el apartado anterior sin haberse notificado la resolución, los interesados podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo.

*11.ª Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.*

La aceptación de la subvención por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril. Estarán obligadas, además, a lo siguiente:

a) Participar en las reuniones que convoque la Dirección General de Igualdad, para lo que se establecerán los cauces y medios necesarios que faciliten la máxima participación.

b) Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado, de acuerdo con lo dispuesto en el decreto foral que regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Garantizar el uso no sexista del lenguaje en todas las comunicaciones, publicaciones, programas, cursos, etc.

d) Dar la adecuada publicidad a la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa en la financiación de los proyectos

EK\CV GAO-I-2015-01245

karteletan, plaka oroigarrietan, material inprimatuetan, bitarteko elektroniko edo ikusentzunezkoetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi instituzionala jasoko da eta finantzaketa publikoaren aipamena egingo da; gauza bera hedabideetan ere.

e) Betetzea oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri espezifikoetan diru laguntza mota bakoitzarentzat jasotako gainerako obligazioak.

*12. Diru laguntzak ordaintzea.*

1. Diru laguntza hauek ordainduko dira I. eta II. eranskinetako oinarri espezifikoetan zehazten den moduan.

2. Diru laguntzak jasotzen dituzten erakundeek izaera publikoa edo helburu soziala dutenez, ez da bermerik eskatuko ordainketa aurreratuengatik.

3. Ordainketak egin ahal izateko, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak betetzen dituztela egiaztatzeko agiri eguneratua aurkeztu behar dute erakunde onuradunek, eskaera aurkeztu zutenetik 6 hilabete baino gehiago igaro bada.

*13. Diru laguntzen justifikazioa.*

1. Oinarri hauetako diru laguntzak zuritzeko, egindako jardueren kontu zurigarria aurkeztuko da, eranskinetan laguntza lerro bakoitzerako bildutako berezitasunak kontuan hartuta. Kontu zurigarriak honako hauek bilduko ditu:

a) Jarduketa memoria, diru laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar da.

b) Diruz lagundutako jardueraren gastuak sailkatzen dituen zerrenda, non adieraziko diren hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data. Diru laguntzaren eskaeran aurkeztutako aurrekontuarekiko izandako desbiderapenak adieraziko dira.

c) Fakturak edo merkatuko trafiko juridikoan edo administrazioan pareko froga balioa duten gainerako dokumentuak eta beste gastu batzuen egiaztagiriak –aurreko paragrafoan aipatutako zerrendakoak–; eta, hala badagokio, ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzak, zenbatekoa eta jatorria barne, xehetasunez jasotzen dituen zerrenda.

e) Diruz lagundutako proiektuaren ondorioz materialak argitaratzean eta hedapen jarduerak burutzean, sortutako dokumentuen bi ale.

f) Ordainagiria, aplikatuko gabeko soberakinen kasuan.

2. Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak diruz lagundutako proiektuak edo jarduerak egiaztatu edo ebaluatu ahalko ditu, erakunde onuradunari aurretik abisatuta; eta erakundeak erraztasunak eman beharko dizkio, behar duen lekuetara joateko eta informazioa eskuratzeko.

Egiaztapen horretatik ondorioztatuko balitz diruz lagundu daitekeen gastua gutxiago dela emandako diru laguntza baino, edo diru laguntza zuritzeko ezarritako baldintzak edo laguntzaren xede zena ez dela bete, diru laguntza jaso duen erakundeari horren berri emango zaio, egiaztapenaren emaitzekin batera; eta hasiera emango zaio diru laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela aitortzeko prozedurari edo, hala badagokio, diru laguntza osorik edo zati batean itzultzeko 15. oinarrian aurreikusitako prozedurari.

3. Diru laguntza jasotzen duen erakundeak Berdintasun Zuzendaritza Nagusiaren berariazko baimena beharko du,

o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de su imagen institucional, así como de leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

e) Cumplir las restantes obligaciones que, para cada modalidad de subvención, se contienen en las bases específicas recogidas en los anexos que acompañan a las presentes bases generales.

*12.ª Pago de las subvenciones.*

1. El pago de las subvenciones se producirá del modo señalado en los anexos I y II que contienen las bases específicas.

2. Dada la naturaleza pública o el carácter social de las entidades beneficiarias de las subvenciones objeto de estas bases, no se exigirá garantía por los pagos anticipados que se efectúen.

3. La realización de los pagos estará condicionada a que las entidades beneficiarias actualicen la documentación acreditativa de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, siempre que se haya rebasado el plazo de 6 meses desde la presentación de la solicitud.

*13.ª Justificación de las subvenciones.*

1. Las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán, con las especialidades que se incluyen en los anexos para cada línea de ayudas, mediante la presentación de una cuenta justificativa de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. Se indicarán las desviaciones acaecidas en relación con el presupuesto presentado con la solicitud de subvención.

c) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa y justificantes de otros gastos, incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

d) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

e) Dos ejemplares de los documentos generados por la edición de materiales y en las actividades de divulgación, que se deriven de la realización del proyecto subvencionado.

f) En su caso, la carta de pago en el supuesto de remanentes no aplicados.

2. La Dirección General de Igualdad podrá realizar actuaciones de comprobación o evaluación de los proyectos y actividades subvencionadas, previo aviso a la entidad beneficiaria, en las que ésta deberá facilitar el acceso a los lugares y la información que se requiera.

Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el gasto subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida, o que se han incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la entidad subvencionada junto a los resultados de la comprobación realizada, y se iniciará el procedimiento para declarar la pérdida del derecho de cobro de la subvención o, en su caso, el procedimiento de reintegro total o parcial de la subvención previsto en la base 15.ª

3. La entidad subvencionada deberá recabar el consentimiento expreso de la Dirección General de Igualdad para llevar

EK\CV GAO-I-2015-01245

hasierako proiektuan aldaketa handiak egin nahi baditu. Edonola ere, 14. oinarrian ezarritakoa bete beharko da.

4. Diru laguntza zuritzeko ezarritako epean ez bada 1. atalean adierazitako dokumentazioa aurkezten, eskumena duen organoak onuradunari errekerimendua egingo dio 15 eguneko epean aurkez dezan. Epe berri hori amaitutakoan frogagiriak ez aurkeztu izanak eragingo du diru laguntza kobratzeko eskubidea galtzea edo 15. oinarrian aurreikusitako itzultzeko prozedura hastea. Hori guztia, salbuespen gisa, baimendu daitezkeen balizko luzapenen kalterik gabe .

*14. Diru laguntza emateko ebazpenaren aldaketa.*

Erakunde onuradunek diru laguntza ematen duen organoari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu aurretik, ebazpena alda dezan: finkatutako epeak luzatzeko, emandako diru laguntza murrizteko edo jardueran bildutako ekintzak aldatzeko. Aurreikusi gabeko gertaeren ondorio direnean edo jarduearen helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere diru laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

